

TREBAKUNTZA 2017-06: BERRIA/BESTE BAT

Badirudi “berri” hitzaren beste adiera bat hasi dela zabaltzen. Gertakari batzuen zerrendan zerbait eransten dela adierazteko erabiltzen dugu, *beste bat* erabili beharrean. Adiera berri hori okerra eta tradizio gabea da.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Eibarko aurrelariak gol berri bat sartu zuen partida amaitzear zegoela.*
2. * *Bost udal berri sartu dira UEMAn azken urtean.*
3. * *Udaleko Parekidetasun batzordeak eraso sexista berri bat gaitzetsi du.*
4. * *Tanto berri bat egin du Olaizolak, ezker gantxo bikaina jota.*
5. * *Udalak bi udaltzain berri kontratatuko ditu udarako, garai horretan lana pilatzen baitzaie.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Berri hitzak honako esanahi hauek ditu:

- Erabili, hondatu edo urratu gabea: oinetako **berriak** nituen, zuk zapaldu arte.
- Orain-oraingoa, egin berria: ogi **berriaren** usaina maite dut.
- Aurreko zerbaiten ordezkoa: zuzendari **berria** izendatu dute.

Erabilera okerrak esapide oker eta gaizki ulertze ugari sortarazten du: **garaipen berri bat lortu, *gol berri bat sartu, *eraso berri bat jasan...* zerrenda luzea osa genezake. Bistan da ez dagoela garaipen zaharrik, ez gol zaharrik, ezta eraso zaharrik ere, eta argi dago horietan guztietan *beste bat* erabili behar dugula: *beste garaipen bat, beste gol bat, beste eraso bat...*

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Inoiz, biak izan daitezke zuzenak, baina ondo erreparatu esan nahi dugunari, okerrrik ez egiteko:

Proposamen **berria** egin digute (*aurrekoa bertan behera utzi dute eta haren ordezkotzat proposamena egin digute*).

Beste proposamen **bat** egin digute (*aurrekoaz gain, badugu beste proposamen bat mahai gainean*).

1. Eibarko aurrelariak **beste gol bat** sartu zuen partida amaitzear zegoela.
2. **Beste bost udal** sartu dira UEMAn azken urtean.
3. Udaleko Parekidetasun batzordeak **beste eraso sexista bat** gaitzetsi du.
4. **Beste tanto bat** egin du Olaizolak, ezker gantxo bikaina jota.
5. Udalak **beste bi udaltzain** kontratatuko ditu udarako, garai horretan lana pilotzen baitzaie.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAn teknikiarekin edo zure udaleko euskara teknikiarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99